ZINEMATEKA

# Irudikatutako hiria

## Zinemaren bidez hiri bat eraikitzeko saioa

---

# La ciudad imaginada

## Tentativa para construir una ciudad a través del cine

Komisarioa / Comisario: **Oskar Alegria**




2019 15 MAIATZA MAYO > 4 UZTAILA JULIO

AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO

Bilbao

# ZINEMA ETA HIRIA

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Zinematekak programazio egonkorra izan du ia azken hamarkada oso honetan, zinema klasikoari eta, aldi berean, sorkuntza-lan garaikideei arreta eginez. Industriako joerak gaindituz, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao erreferentea da zinemagintzako kulturaren dibulgazio-arloan, eta jatorrizko bertsioan duen programazioak aukera ematen digu mintzaira horren jakintzan sakontzeko, zirkuitu komertzialetik kanpo dauden artelanen bidez.

Ibilbide desberdina duten zinema arloko hemengo eta nazioarteko adituekin lantzen dugu programazioa. Oraingoan, Oskar Alegria zinemagile eta komisarioari egin diogu gonbit, ziklo honen bidez *Irudikatutako hiria* birsortzeko. Alegriak hiriei buruzko narrazioak egin ditu, konbentzionalak ez diren kontakizunez eta begiradaz, eta, orain, zortzi film luze eta bi film dokumental labur proposatuko dizkigu guztira; horietan hiri-mapak aurkituko ditugu, egunerokoak eta ezezagunak, eta laguntza emango digute beste hiri bat eratzeko, gurea, bizileku izan nahi genukeena edo ez.

Ibilbide honetan, hainbat emakumezko zuzendariren lana jarriko dugu agerian: Heddy Honigmann (Holanda), Maya Goded (Mexiko), Myriam Ayçaguer (Frantzia), Roya Eshraghi (Iran), Irene Gutiérrez (Kuba), Iris Zaki (Israel) eta Claire Simon (Frantzia). Sorkuntza garaikideko erreferenteak dira denak, eta haien lanak ez ditugu zirkuitu komertzialean aurkituko.

Programa paradoxez eta ironiez beterik dago, eta atea zabaltzen dio gure imajinazioari, gonbit egiten digu hiri utopiko hori osa dezagun irudien bidez. Eraiki dezagun, beraz, geure hiri irudikatua.

---

# CINE Y CIUDAD

La Zinemateka de Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao mantiene desde hace casi una década una programación estable que atiende tanto al cine clásico como a la creación más contemporánea. Más allá de las tendencias de la industria, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao se sitúa como un referente de divulgación de cultura cinematográfica, con una programación en versión original que permite profundizar en el conocimiento de su lenguaje a partir de obras que están fuera del circuito comercial.

Una programación que desarrollamos junto con especialistas del medio, locales e internacionales y de distinta trayectoria. En este caso hemos invitado al cineasta y comisario Oskar Alegria para recrear *La ciudad imaginada* a través de este ciclo. Él, que ha narrado las ciudades a través de relatos y miradas no convencionales, nos propone ocho largometrajes y dos cortometrajes documentales en los que encontramos mapas urbanos cotidianos y desconocidos que nos ayudan a componer otra ciudad, la propia, la que nos gustaría o no habitar.

En este recorrido visibilizamos el trabajo de directoras como Heddy Honigmann (Holanda), Maya Goded (México), Myriam Ayçaguer (Francia), Roya Eshraghi (Irán), Irene Gutiérrez (Cuba), Iris Zaki (Israel) o Claire Simon (Francia), referentes en la creación contemporánea y cuyas obras que no se encuentran en el circuito comercial.

Se trata de un programa repleto de paradojas e ironías que abre la puerta a nuestra imaginación, que nos invita a componer esa urbe utópica a través de las imágenes. Construyamos pues nuestra ciudad imaginada.

**Fernando Pérez**
Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoko Zuzendaria / Director de Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao

# IRUDIKATUTAKO HIRIA

## Zinemaren bidez hiri bat eraikitzeko saioa

‘Monopoly’ bat izango balitz bezala, ziklo honek filmez osatutako hiriko mapa bat eraikiko eta proiektatutako du. Egun batean kantoi bat izango da protagonista, hurrengoan plaza bat; aste batean hotel bati buruz hitz egingo digu filmak, hurrengoan espetxe bat aurkeztuko digu; parke bat ere egongo da... Eta horrela, pelikulaz pelikula, irudiz osatutako hiri baten giltzarriak batuz joango dira, pantailan baizik egin ezin den eran. Gure irudira eta antzera eraikitako hiria, non dokumental garaikidea erabiliz hausnarketa filmikoa planteatu nahi den gizakiaren asmakuntzarik handienetako bati buruz: Greziako polisa. Izan ere, 2050ean mundu osoko hiru biztanletatik bi halako batean biziko dela uste da.

Eta programan paradoxa eta jokoa erabiliko ditugu, irudikatuko dugun hirian Israelen dagoen ile-apaindegi baten ondoan kanadar farmazia bat egongo baita eta La Habana erdian sortutako zuhaitz batetik Parisko hilerri batera joango gara oinez: Père-Lachaise-ra. Hori izango da zikloaren hasierako protagonista, Heddy Honigmann zinemagilearen *Forever* (2006) filmaren bidez, eta hori da hiria isilen dagoen eta altxorrik handienetako bat gordetzen duen tokia: Marcel Proust, Oscar Wilde, Jim Morrison, Maria Callas eta beste zenbaitek hilobiak. Hor, erretratu bisuala ez da soilik hildakoen hitzetan geratzen, baizik eta jarraitu egiten die bisitaririk kezkatsuenei.

Le Corbusier-ek esan zuenez, hiriak zerua eta espazioa ditu, altzairua eta zementua izan aurretik; eta zeru horren eta espazio horren artean banatzen diren ametsak izango dira arretagune nagusiak gure kaleen eta eraikinen trazatuan. Gianfranco Rossiren *Sacro Gra* (2013) filmean ageri diren ametsak eta biztanleak; film horrek poetikotasun handiz deskribatzen baitu Erroma barnean hartzen duen ingurabide handia, non hiri eternala murruetatik kanpo hasten den dardarka eta taupadaka. Harekin bilduko dugu gure zikloaren azken mapa.

---

# LA CIUDAD IMAGINADA

## Tentativa para construir una ciudad a través del cine

Como si de un ‘Monopoly’ se tratara, este ciclo construye y proyecta un mapa urbano compuesto por películas. Un día será una esquina la protagonista, otro día una plaza, otra semana una película nos hablará de un hotel, le seguirá otra que nos presentará una cárcel, también habrá un parque… y así entre todos los filmes irán sumando pieza a pieza las claves de una ciudad de imágenes solo posible en la pantalla. Una urbe construida a nuestra imagen y semejanza, donde la idea de fondo será plantear una reflexión fílmica a través del documental contemporáneo sobre la mayor de las invenciones humanas: la polis griega donde se calcula que en el 2050 habitarán dos de cada tres personas de la población mundial.

Y el programa permitirá la paradoja y el juego, solo en nuestra ciudad imaginada una peluquería en Israel compartirá manzana con una farmacia canadiense y de un árbol que brota en medio de La Habana pasaremos a pie hasta un cementerio de París: Père-Lachaise. Este último será el protagonista del comienzo del ciclo con el filme *Forever* (2006), de la cineasta Heddy Honigmann, donde la ciudad guarda el mayor de sus silencios y sin duda sus mayores tesoros: las tumbas de Marcel Proust, Oscar Wilde, Jim Morrison, Maria Callas… y donde el retrato visual no se queda solo en la palabra de los muertos, sino que sigue en vida a sus visitantes más inquietos.

La ciudad, como dijo Le Corbusier, está compuesta de cielo y espacio, antes que de acero y cemento, y los sueños que se distribuyen entre ese cielo y ese espacio serán el centro de atención en nuestro trazado de calles y edificios. Sueños y habitantes que participan en *Sacro Gra* (2013) de Gianfranco Rossi, película que retrata con pausa poética el gran cinturón de ronda que circunvala la ciudad de Roma, donde la ciudad eterna vibra y late extramuros, y con la que envolveremos el mapa final de nuestro ciclo.

**- Oskar Alegria -**
Komisarioa / Comisario



A/F: Patxi Uriz

## OSKAR ALEGRIA

Iruña-Pamplona (1973)

Kazetaritza ikasketak egin eta El País egunkariaren *El Viajero* gehigarrirako hainbat bidai erreportai idatzi zituen. Enrique Vila-Matasek oniritziarekin, *Hiri ikustezinak* izeneko argazkilaritza egitasmo artistikoa osatu zuen.

Nafarroako Unibertsitateko ikus-entzunezko gidoien masterreko irakasle da, eta 2013az geroztik Nafarroako Ikuspuntu zinema dokumentalaren nazioarteko jaialdiaren zuzendari artistiko lanak betetzen ditu. Bere lehenbiziko luzemetraia, Emak Bakia baita, munduko osoko dozenaka jaialditan erakutsi izan da, 15 sari jaso ditu eta 13 hizkuntzetan itzulia izan da.

---

Periodista de formación, escribe reportajes de viajes en el suplemento *El Viajero* de El País y es autor de un proyecto artístico de fotografía llamado *Las ciudades visibles*, avalado por el escritor Enrique Vila-Matas.

Profesor de guion de documentales en el Master de Guion Audiovisual de la Universidad de Navarra, en 2013 fue nombrado director artístico del Festival Internacional de Cine Documental Punto de Vista de Navarra. Su primer largo, Emak Bakia baita, ha recorrido 70 festivales internacionales y ha sido galardonado con 15 premios y traducido a 13 idiomas.

# EGITARAUA / PROGRAMA

| | | |
|---|---|---|
| **15** MAIATZA MAYO<br>Asteazkena / Miércoles | 19:30 | **FOREVER, 2006**<br>**Oskar Alegria komisarioak *Irudikatutako Hiria* zikloa aurkezten du (Eus. - Gaz.) / El comisario Oskar Alegria presenta el ciclo *La ciudad imaginada* (Eus. - Cas.)**<br>Holanda. 95' Dokumentala / Documental |
| **16** MAIATZA MAYO<br>Osteguna / Jueves | 17:30 | **FOREVER, 2006**<br>Holanda. 95' Dokumentala / Documental |
| **22** MAIATZA MAYO<br>Asteazkena / Miércoles | 19:30 | **PLAZA DE LA SOLEDAD , 2016**<br>Mexiko / México. 78' Dokumentala / Documental |
| **23** MAIATZA MAYO<br>Osteguna / Jueves | 17:30 | **PLAZA DE LA SOLEDAD , 2016**<br>Mexiko / México. 78' Dokumentala / Documental |
| **29** MAIATZA MAYO<br>Asteazkena / Miércoles | 19:30 | **MUR(S) RUE DE LA SANTÉ, 2004**<br>**Zuzendariaren aurkezpena eta ondoren, solasaldia (Eus.) / Presentación de la directora y coloquio posterior (Eus.)**<br>Frantzia / Francia. 59' Dokumentala / Documental |
| **30** MAIATZA MAYO<br>Osteguna / Jueves | 17:30 | **MUR(S) RUE DE LA SANTÉ, 2004**<br>Frantzia / Francia. 59' Dokumentala / Documental |
| **5** EKAINA JUNIO<br>Asteazkena / Miércoles | 19:30 | **DERAKHT (THE TREE), 2015**<br>Iran / Irán. 14'<br>+<br>**HOTEL NUEVA ISLA, 2014**<br>Kuba / Cuba. 71' Dokumentala / Documental |
| **6** EKAINA JUNIO<br>Osteguna / Jueves | 17:30 | **DERAKHT (THE TREE), 2015**<br>Iran / Irán. 14'<br>+<br>**HOTEL NUEVA ISLA, 2014**<br>Kuba / Cuba. 71' Dokumentala / Documental |

| | | |
|---|---|---|
| **12** EKAINA JUNIO<br>Asteazkena / Miércoles | 19:30 | **WOMEN IN SINK, 2015**<br>Israel. 36' Dokumentala / Documental<br>**+**<br>**EAST HASTINGS PHARMACY, 2012**<br>Frantzia / Francia. 47' |
| **13** EKAINA JUNIO<br>Osteguna / Jueves | 17:30 | **WOMEN IN SINK, 2015**<br>Israel. 36' Dokumentala / Documental<br>**+**<br>**EAST HASTINGS PHARMACY, 2012**<br>Frantzia / Francia. 47' |
| **19** EKAINA JUNIO<br>Asteazkena / Miércoles | 19:30 | **LE BOIS DONT LES RÊVES SONT FAITS, 2015**<br>Frantzia / Francia. 144' Dokumentala / Documental |
| **20** EKAINA JUNIO<br>Osteguna / Jueves | 17:00 | **LE BOIS DONT LES RÊVES SONT FAITS, 2015**<br>Frantzia / Francia. 144' Dokumentala / Documental |
| **26** EKAINA JUNIO<br>Asteazkena / Miércoles | 19:30 | **INTIMIDADES DE SHAKESPEARE Y VÍCTOR HUGO, 2008**<br>Mexiko / México. 89' Dokumentala / Documental |
| **27** EKAINA JUNIO<br>Osteguna / Jueves | 17:30 | **INTIMIDADES DE SHAKESPEARE Y VÍCTOR HUGO, 2008**<br>Mexiko / México. 89' Dokumentala / Documental |
| **3** UZTAILA JULIO<br>Asteazkena / Miércoles | 19:30 | **SACRO GRA, 2013**<br>Italia. 93' Dokumentala / Documental |
| **4** UZTAILA JULIO<br>Osteguna / Jueves | 17:30 | **SACRO GRA, 2013**<br>Italia. 93' Dokumentala / Documental |

Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniaz azpititulatuak (JBGA)
Sarrerak: Zinemako txarteldegian eta www.golem.es helbidean

Todas las proyecciones son en Versión Original, con subtítulos en castellano (VOSE)
Entradas: Taquillas de Cines Golem Alhóndiga y en www.golem.es

**4,5€ [3,5€ Az Txartelarekin / Con Tarjeta Az] + info: www.azkunazentroa.eus**

**FOREVER**
**Heddy Honigmann**

**PLAZA DE LA SOLEDAD**
Maya Goded

**MUR(S) RUE DE LA SANTÉ**
Myriam Ayçaguer

**DERAKHT (THE TREE)**
Roya Eshraghi

**HOTEL NUEVA ISLA**
Irene Gutiérrez

**WOMEN IN SINK**
Iris Zaki

**EAST HASTINGS PHARMACY**
Antoine Bourges

**LE BOIS DON'T LES RÊVES SONT FAITS**
Claire Simon

**INTIMIDADES DE SHAKESPEARE Y VICTOR HUGO**
Yulene Olaizola

**SACRO GRA**
Gianfranco Rosi



# FOREVER (2006)

95'. Holanda. Dokumentala / Documental
**Z/D: Heddy Honigmann**
**G: Heddy Honigmann, Ester Gould, Judith Vreriks**

Irudikatutako hiriaren gure mapa amaieratik hasten da: hilerritik. Hiriak bere minutuko isilunea egiten duen tokitik. Kaleetatik aldendutako tokia, bere bakardadean baztertua, ibilbidearen amaiera, baina gure amestutako hirian erromesaldiak egiten dira toki honetara eta errespetuz betetako paseoak ere bai. Gure mapa hilerririk ospetsuenean hasten da, Parisko Père-Lachaisen, eta hor daude betiko atsedenean Marcel Proust, Jim Morrison, Edith Piaf, Frédéric Chopin… eta beste zenbait herritar ilustre. Mundu osoko bisitarien zerrenda luzea hartzen dute eta bizien hilerri bihurtzen da.

---

Nuestro mapa de la ciudad imaginada empieza por su final: el cementerio. El espacio donde la ciudad guarda su minuto de silencio. Lugar de normal apartado de las calles, arrinconado en su soledad, fin de trayecto, es aquí sin embargo, en nuestra urbe soñada, un centro de peregrinación y paseo respetuoso. Nuestro mapa empieza con el rey de los camposantos, Père-Lachaise en París, donde reposan ilustres ciudadanos como Marcel Proust, Jim Morrison, Edith Piaf, Frédéric Chopin… y que acogen un largo etcétera de visitantes de todo el mundo que lo convierten en un cementerio de vivos.



## PLAZA DE LA SOLEDAD (2016)

78'. Mexiko / México. Dokumentala / Documental

**Z/D/G: Maya Goded**

Ez dago plazarik gabeko hiririk, biltzeko gunerik ez duenik, kaleen joan-etorria albo batera utzi eta topaketara irekitzen den toki hori gabeko hiririk ez dago. La Plaza de la Soledad edo Bakardadearen Plazak izen paradoxikoa du eta pausuak adina altxor ditu. Ez da erdialdeko plaza bat, plaza nagusiaren itzalean bizi den atzeko plaza da, kasu honetan Mexiko hiri handiko Zócalo plazaren itzalean bizi da eta mapa ofizialak ezkutatzen dituen historiekin eta atzeko aldearekin jolasean ibiltzen da, bertako biztanleen sekretuak argitan jarriz: hiriko prostituta beteranoenak.

---

No hay ciudad sin plaza, sin centro de reunión, sin ese espacio donde las calles abandonan el tránsito y se abren al encuentro. La Plaza de la Soledad, con su nombre tan paradójico, encierra tantos tesoros como pisadas. No es una plaza céntrica, es la plaza trasera que siempre vive a la espalda de la plaza principal, en este caso el Zócalo, en el gran México DF, y así juega con el reverso y con las historias que el mapa oficial esconde mostrando el secreto de sus habitantes al margen: las veteranas prostitutas de la ciudad.



## MUR(S) RUE DE LA SANTÉ (2004)

**Zuzendariaren aurkezpena eta ondoren, solasaldia (Eus.) / Presentación de la directora y coloquio posterior (Eus.)**

59'. Frantzia / Francia

**Z/D/G: Myriam Ayçaguer**

Irudikatutako hiriko gaurko ikustaldian espetxe batera goaz, baina gure hiriko mapatik ihes egin gabe. Parisko espetxerik antzinakoenetako bat rue de La Santé mitikoan dago 1867az geroztik, argiaren hiriaren erdigunean. Hain dago erdian, bere itzalean itxita bizi direnekin hitz egin daitekeela kaletik, auzotar batzuk egiten duten bezala. Myriam Ayçaguer euskal errealizadorea espetxearen hormen inguruan ibili da eta horma sendoei begiratu die, galdera itxurako dokumental eder honetan: nor dago egiaz horma garai hauen barruan? non dago horma hauen barrua eta kanpoa?

---

La visita a la ciudad imaginada nos lleva hoy a una cárcel, pero sin escaparnos de nuestro mapa urbano. Uno de los presidios más antiguos de la ciudad de París se alza desde 1867 en la mítica rue de La Santé, en medio del trazado de la ciudad luz. Tan en medio que es posible hablar desde la calle con los que viven encerrados en su sombra, como hacen varios vecinos del lugar. La realizadora vasca Myriam Ayçaguer merodea y planta su mirada ante los recios muros del presidio para lanzar este bello documental con forma de pregunta: ¿a quién encierran estas altas paredes en realidad? ¿dónde queda el dentro y fuera de sus paredes?






## DERAKHT (THE TREE) (2015) + HOTEL NUEVA ISLA (2014)

14'. Iran / Irán
**Z/D/G: Roya Eshraghi**

71'. Kuba / Cuba. Dokumentala / Documental
**Z/D: Irene Gutiérrez**
**G: Irene Gutiérrez, Javier Labrador, Lorenzo Salazar**

Gure hiriko mapako altxorra 15 minutuko film txiki hau da. Zuhaitz bat La Habana handiaren erdian, hiriko funtsaren eskema guztiak apurtzen dituen elementua. Zementua, asfaltoa, hiriko materia gris oro kontraesanean dago berdearekin, biziarekin eta naturalarekin, gure eskuetatik kanpo dagoenarekin, sustraiarekin eta jatorriarekin. Gaur eskutitz forma du irudikatutako hiriak, zuhaitz formako eskutitza da, etxe formako zuhaitza.

Bigarren pelikulan Kuban jarraitzen dugu. Orain Hotel handi batera goaz, hiri bateko bisitariak denbora batez bizi izaten diren etxera. Gure irudikatutako mapan Hotel Nueva Isla ezagutuko dugu, iraganeko erlikia, hondamendiak zigortua, biztanleak ez dira aldi baterakoak baizik eta beste aterperik ez eta bere babesean geratu dira betirako. Bizi den hotela. Biztanle guztien artean Jorge nabarmentzen da, erretiratuta dago eta hoteleko hormetan altxor bat dagoela ezkutatu uste du eta hondakinak txikitzen igarotzen du egun bat bai eta bestea ere bai, itxaropenaren erritmoaren arabera.

---

El tesoro de nuestro mapa urbano es este pequeño filme de apenas 15 minutos. Un árbol en medio de la gran Habana, como elemento que rompe todos los esquemas de la esencia urbana. El cemento, el asfalto, toda la materia gris de una ciudad parecen en contradicción permanente con el verde, lo vivo y natural, lo que escapa a nuestra mano, la raíz y el origen. Hoy la ciudad imaginada tiene forma de carta, una carta con forma de árbol, un árbol con forma de casa.

En la segunda película seguimos en Cuba. Ahora visitamos un gran Hotel, en teoría la casa donde habitan temporalmente los visitantes de una ciudad. En nuestro mapa imaginado conoceremos el Hotel Nueva Isla, una reliquia del pasado castigada por las ruinas, pero donde los habitantes ya no están de paso sino que son inquilinos sin techo que se han quedado en su refugio para siempre. El hotel habitado. Entre todos sus vecinos, destaca Jorge, un jubilado que cree firmemente que las paredes del viejo hotel esconden un tesoro y día a día va picando entre los escombros a ritmo de esperanza.





A/F: imdb.com

## WOMEN IN SINK (2015) + EAST HASTINGS PHARMACY (2012)

36'. Israel. Dokumentala / Documental
**Z/D/G: Iris Zaki**

47'. Frantzia / Francia
**Z/D: Antoine Bourges**

Programa bikoitza, Israeldik Kanadara eramango gaitu bi kantoiren bidez: ile-apaindegi bat eta farmazia bat. Gure hiriak bi mundu aurkeztuko dizkigu gaurkoan, beharbada diruditen baino auzoagoak direnak gainera. Women in sink ile-apaindegia laborategi perfektua da hiriaren egiaren berri izateko, komunikabideetan agertzen ez den horrena. Iris Zaki zuzendariak bere kamera zenitala konketaren gainean jarri eta bere bezeroekin hitz egiten du lasai eta begiak itxita dauden une horretan. Ideiak, elkarbizitza eta arabiarren eta juduen arteko banaketak agertuko eta argituko dira xanpuaren eta ur epelaren laguntzarekin.

Handik bi kalera beste lokal bat jarri dugu gure zikloan, indar berdina du eta erretratu soziologikoa da hau ere. Kamera hau ere estatikoa da, baina oraingo hau Vancouverreko farmazia batean dago, East Hastingsen, bere segurtasunezko beiraren ondoan; beira hori da farmazialaria eta bere pazienteak banatzen dituena, egunero joaten dira paziente horiek metadona dosiaren bila, drogaren infernutik irten ahal izateko. Beira hori da muga, hiria mugaz beteta dago, muga fin eta gardena dago desesperazioz betetako lekukotzen eta zientziaren zorroztasunaren artean, dardararen eta irmotasunaren artean, ezinaren eta nahiaren artean.

---

Programa doble que nos lleva de Israel a Canadá a través de dos esquinas: una peluquería y una farmacia. Nuestra ciudad presenta hoy dos mundos que quizás sean más vecinos de lo que aparentan. La peluquería de *Women in sink*, es un laboratorio perfecto para pulsar la verdad ciudadana, la que no sale en los medios de comunicación. La directora Iris Zaki coloca su cámara cenital sobre el lavabo y habla con sus clientas en ese momento de relax y ojos cerrados. Las ideas, la convivencia y las divisiones de árabes y judíos van desfilando y aclarándose a golpe de champú y chorros de agua templada.

Dos calles más allá, instalamos en nuestro ciclo otro local con una misma fuerza y retrato sociológico. La cámara también estática se planta esta vez en una farmacia de Vancouver, en East Hastings, justo en su cristal de seguridad, el que divide a la farmacéutica de los pacientes que acuden a diario a por su dosis de metadona para salir del infierno de la droga. Ese cristal es otra frontera, la ciudad está llena de ellas, una frontera fina y transparente entre los testimonios de desesperación y el rigor de la ciencia, entre el temblor y la firmeza, entre la impotencia y el deseo



A/F: imdb.com

## LE BOIS DONT LES RÊVES SONT FAITS (2015)

144'. Frantzia / Francia. Dokumentala / Documental

**Z/D: Claire Simon**

Parkerik gabeko hiria, urik gabeko oasia da. Parkea basoa denean, hiriak irribarre berdeagoa izaten du. Basoaz gain aintzira ere baldin badauka, urezko ispiluari esker dirdira egingo du. Kaleen trazatutik kanpo eta lokatzezko beste espaloi batzuk gogorarazteko eta zumardiak gogoan izateko, Vincennes baso ederreko 995 hektareak daude, Parisen birika berdeetako bat da, gure irudien hirian atsedenerako aukeratutako parkea. Claire Simon zinemagile handia bere elkarrizketekin parkeko txokorik ezkutuenetan ibiliko da, sexu-hitzorduen txokoan esaterako, eden baten bila dabiltzan bakartiak edo etorkin-komunitateen bilerak. Txoko batzuek eta besteek betetzen dute parkearen zeregina eta berdean amets egiten duen hiri grisaren ametsak ere bai.

---

Una ciudad sin parque es un oasis sin agua. Cuando el parque es un bosque, la ciudad entonces muestra una sonrisa más verde. Si además tiene lago, el mapa de la ciudad brillará con el añadido de un espejo de agua. Fuera del trazado de las calles y para recordar otras aceras de barro y con avenidas de álamos se extienden las 995 hectáreas del bello bosque de *Vincennes*, uno de los pulmones verdes de Paris, el gran parque elegido para el reposo en nuestra ciudad de imágenes. La gran cineasta Claire Simon recorre con sus conversaciones sus rincones más secretos, como el de las citas sexuales, los solitarios en busca de un edén o las reuniones de las comunidades de inmigrantes. Unos y otros cumplen con el cometido del parque y con los sueños de una ciudad gris que se sueña verde.



A/F: sensacine.com

## INTIMIDADES DE SHAKESPEARE Y VICTOR HUGO (2008)

89'. Mexiko / México. Dokumentala / Documental

**Z/D/G: Yulene Olaizola**

**A: Regina Cardo, Florencia Vega Moctezuma**

Kale baten izena 'Shakespeare' bada, enigma berekin du. Beste baten izena 'Victor Hugo' bada, erromantizismo puntu bat du. Bi kale horiek gurutzatu egiten badira eta kantoi bat sortzen badute, ezin da literaturaren ukiturik gabe geratu elkarte horretatik sortzen de oro. DFn gaude, Mexiko hiri handian, Anzures auzoan. Kantoi hori izatez bada eta Yulene Olaizola zinemagilearen familiak ostatu bat du bertan. Maisutasun handiz erakutsiko dizkigu bere amona ostalariaren kontakizuna eta apopilorik misteriotsuenarena: inoiz gosaltzen ez duen gazte bat da, iritsi orduko gazte hilko dela adieraziko du eta joandakoan inor sartzen ausartuko ez den logela bat baino ez du utziko. Esan bezala, Shakespeare eta Victor Hugo elkarri eskua emanda.

---

Que una calle se llame 'Shakespeare' ya promete un enigma. Que otra se llame 'Victor Hugo' le da un toque de romanticismo. Que esas dos calles tengan un punto donde se cruzan y generan una esquina no puede dejar sin mella literaria a todo lo que brote de esa unión. Estamos en el DF, México gran ciudad, concretamente en el barrio Anzures. Esa esquina existe y en ella se alza una casa de huéspedes de la familia de la cineasta Yulene Olaizola. Con gran maestría sigue el relato de su abuela que es la hospedera y del inquilino más misterioso: un joven que jamás desayuna, que anuncia nada más llegar su muerte temprana y del que quedará, cuando se vaya, un cuarto al que no se atreverán a entrar. Lo dicho Shakespeare y Victor Hugo de la mano.




## SACRO GRA (2013)

93'. Italia. Dokumentala / Documental
**Z/D/G: Gianfranco Rossi**

Gure maparen amaiera, hiriko elementurik nagusienetako bat behar zen amaitzeko: irudikatutako hiria osorik inguratzen duen ingurabidea. Oraingo honetan Erroma eta bere uztai sagaratua aukeratu ditugu. Hiriburuko muinoak inguratzen dituen 70 kilometroko autobidea, trafiko handia eta hiriaren amaierako isiltasuna elkarrekin bizi diren ingurabidea. Film hau murruetatik kanpoen bizi direnen bidez egindako bidaia da: palmeretan aditu bat, aingira-arrantzale baten bakea, murruetatik kanpoko leiho bilduma eta ohiko elkarrizketak... Hau da, gure irudikatutako hiriko azken biztanleen ametsak eta misterioak; betiereko hiri eternal baten maparen inguruan dabiltzan ametsak eta misterioak.

---

Fin de nuestro mapa, no podría ser sin otro de los elementos más urbanos: el cinturón de ronda que envuelve toda ciudad imaginada. Esta vez elegimos Roma y su anillo sagrado. 70 kilómetros de autopista de circunvalación que bordean las colinas capitalinas, donde el tráfico intenso y el silencio del fin de la ciudad conviven. La película es un viaje a través de sus habitantes más extramuros: un experto en palmeras, la paz de un pescador de anguilas, la colección de ventanas de extrarradio con sus conversaciones cotidianas… en definitiva los sueños y misterios de los últimos habitantes de nuestra ciudad imaginada, unos sueños y misterios que orbitan el mapa de una ciudad eterna.

## SARRERAK / ENTRADAS

Zinemako txarteldegian eta www.golem.es helbidean / Taquillas del cine y www.golem.es
**4,5€ [3,5€ Az Txartelarekin / Con Tarjeta Az]**

## INFORMAZIO ERABILGARRIA / INFORMACIÓN ÚTIL

- Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniaz azpititulatuak (JBGA).
- Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke. Informazio gehiago: www.azkunazentroa.eus
- Zinema-aretoa filma ematen hasi baino 15 minutu lehenago zabalduko da. Ikusleei mesedez eskatzen diegu minutu batzuk lehenago etortzeko, txartelleheihatilan ilarak saihesteko.
- Gainerako ikusleekin errespetuz jokatzeko, behin saioa hasi ondoren, ezin izango da aretora sartu. Ezinbestekoa bada, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok beretzat gordetzen du eskubidea programatutako jarduerak bertan behera uzteko, aldatzeko edo atzeratzeko, aldez aurretik bere web-orrian jakinarazita: www.azkunazentroa.eus
- Liburuxka hau zurekin eraman baino lehen, pentsa ezazu ingurumenaren inguruan duzun erantzukizunarekin eta konpromisoarekin. Ez baduzu erabiliko, utz ezazu bertan, beste pertsona batzuek ikus dezaten.

---

- Todas las proyecciones son en versión original subtitulada en castellano (VOSE).
- La programación de Zinemateka está sujeta a cambios de última hora. Más información: www.azkunazentroa.eus
- La sala de cine se abrirá al público 15 minutos antes de la proyección de la película. Se ruega a los espectadores y espectadoras que acudan con unos minutos de antelación para evitar colas en taquilla.
- Por respeto al resto del público, no está permitido el acceso a la sala una vez comenzada la sesión. En caso de fuerza mayor, Azkuna Zentroa se reserva el derecho a cancelar, modificar o aplazar las actividades programadas, previa comunicación pública en su web azkunazentroa.eus
- Antes de llevarte este folleto, piensa en tu responsabilidad y compromiso con el medio ambiente. Si no lo vas a usar, déjalo para que otras personas puedan verlo.

## LABURDURAK / ABREVIATURAS

**A/F:** Argazkia / Fotografía
**A/R:** Aktoreak / Reparto
**Dk/Dc:** Dekoratuak / Decorados
**Eus.:** Euskara / Euskera
**G:** Gidoia / Guion
**Gaz./Cas.:** Gaztelania / Castellano
**JB/VO:** Jatorrizko Bertsioa / Versión Original
**JBG / VOES:** Jatorrizko Bertsioa Gaztelaniaz / Versión Original en Castellano
**JBGA / VOSE:** Jatorrizko Bertsioa Gaztelaniaz Azpititulatua / Versión Original con Subtítulos en Castellano
**K/C:** Kolorea / Color
**M:** Musika / Música
**Mu/Mo:** Muntaketa / Montaje
**P:** Produktorea / Productor
**Pr:** Ekoizpen-etxea / Compañía productora
**S:** Soinua / Sonido
**ZB/BN:** Zuri-beltzez / Blanco y negro
**Z/D:** Zuzendaria / Director

Gure programazioari buruzko informazioa jaso nahi baduzu, jar zaitez harremanetan Az-rekin / Si quieres recibir información de nuestra programación comunícate con Az:

**www.azkunazentroa.eus**
**info@azkunazentroa.eus**
**PLAZA ARRIQUIBAR, 4 - 48010 BILBAO**
**944 014 014**

LG-DL: BI-129-2016

Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea
sociedad y cultura contemporánea

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO